

Berako Plazatik

1. zenbakia ❖ 2012ko ekaina
Berako Udalaren albisteak

Egun hauetan beteko da agintaldiaren lehenbiziko urtea, lehenengo laurdena. Egun udala Herriko Plazan ez badago ere, hemen bertako ikuspegia agertu nahi izan dugu.

Mugikortasuna ardatz hartuta, bertze gai batzuk ere ekarri ditugu honat. Udalaren zeregina anitza da eta aukeratzen hasita hau da oraingoan prestatu duguna.



Berako Plazatik

1. zenbakia ♦ 2012ko ekaina
Berako Udalaren albisteak



www.berakoudala.net

Merkataritzaz gogoeta

Berako Udalak, Larun-Haizpe merkatarien elkartearekin elkarlanean, Berako merkataritzaren gaineko gogoeta prozesu parte hartzaile bat landu du. 34 herritarrek parte hartu du, eta Berako denden egoera aztertu dute, zein indargune, ahulgune, aukera eta mehatxu dituzten landu da. Hamar urteren buruan Berako merkataritzak nolakoa behar lukeen zehaztu da, eta horretarako, zein bide landu beharko litzatekeen zehaztu zen. Orain, Udaleko Garapen Batzordeak eta merkatarien elkarteak elkarlanean, bertan bildutako proposamenei zein segida eman eta nola landu aztertzen ari dira. Helburua, herriko denda tikiak bultzatzea da, herriari bizitasuna ematen diotelako, zerbitzua, eta Beran erosteak bertako ekonomia sustatzen laguntzen du, lanpostuak sortzearekin batera.

Jardunaldietako txosten osoa eskuratzen ahal da Berako Udalaren webgunean: www.berakoudala.net

Zaborren gaineko eztabaida

Gizakiok beti sortu dugu zaborra. Gaur egun, inoiz sortu izan dugun zabor kopururik handiena egiten dugu. Horretatik %50 inguru organikoa da, batez ere elikagai freskoak kontsumitzen ditugunean. Zabor organikoaren %60a ura da, eta hortaz, Iruñeko eta Tuterako zabortegietara ura garraiatzeko erregaia, denbora, dirua eta lan eskua xahutzen ari gara.

Gaur egun, ehunka kilometrora eramaten dugu edukiontzi berdeko zaborra. Kamioi bakoitzaren zamaren erdia, gutienez, ekidin daiteke, eta ondorioz, bidaien erdia egin ahal izanen litzateke, energia eta dirua aurreztuz. Egun, komunikabideetan ikusten dugun eztabaida ez da antzua, ez da moda kontua, giza duintasun kontua da. Gainera, Europako araudiak ere zaborra murriztea eta sailkatzea exijitzen digu. Zabor gutiago sortzea, berrerabiltzea eta birziklatzea handitzea dira gizarte bezala ditugun erronkak.

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean ere eztabaida mahai gainean dago: banakako konpostatzea egiten hasi zen, eta orain, kolektibitatean konpostatzea aztertzen ari da, nola bildu zabor organikoa, bakarrik modu boluntarioan, herritarrak behartuz... Edukiontzian sartzearekin zaborra gure bizitzatik desagertzen dela pentsa dezakegu, baina ez da horrela.

Sortzen dugun zaborraz arduratzeko beharra dugu



Konposta egiteko ontzi komunitarioak jartzea aztertzen ari gara Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean

Garapenerako laguntza

Udal aurrekontua prestatzen denean, urtero, diru kopuru bat jartzen da garapenerako laguntzarako. Azken urteotan 3.000 euro bideratzen dira. 2011 urtean Kurdistango Diyarbakirreko emakumeendako laguntza zentrori bideratu zuen laguntza Berako Udalak. Erakunde honek herritarrei eskaintzen die zerbitzu garrantzitsuak: alfabetatzea, eskulangintza, sukaldaritza eta ostalaritzarako prestakuntza egiten da, gehien bat, eskualdeko emakume behartsuenekin.

Mugikortasun Plana

Azkeneko urtetan gure herri eta hirietako paisaia erabat aldatu da eta honek gure egunerokoan eragiten digu. Herri barranean kotxez ibiltzen gara, oinez ibiltzea arriskutsu bihurtu da, aparkalekuak beteta daude, kotxearekin ateraino ailegatu nahi dugu, beti presaka gabilta, erranen genuke kotxeak gailendu zaizkigula.

Duela hiru urte eskas hasi ginen lantzen Udalean mugikortasuna, herriko eragileen partaidetzarekin. Lehenbizi ituna sinatu genuen, eta joan den urteko abenduan, Udalak, ahobatez, onartu zuen MUGIKORTASUN PLANA.

Errealitate hau ez da arrotza guretzat, denok dakigu teoria, baina egiazki ez gara ahalegintzen egokiak ez diren ohi-turak aldatzen.

Kotxea behar baino gehiago erabiltzeak gure ekonomian duen eraginaz gain, lurraren baliabide energetikoak murrizten ditu eta ingurumenaren kalteimrako da. Aldi berean norberaren bizikaltatean eta gure harremanetan eragiten du eta herriko bizimodua baldintzatzen du.

Aldaketa bilatu nahi badugu, jendeari erraztasunak eman behar zaizkio eta bidean topatu daitezkeen trabak eta arriskuak saihestu behar ditugu.

Hobeki mugitzeko, hau da, kotxea behar denean bakarrik erabiltzeko, oinezko ibilbideak lehenetsi behar ditugu eta ahal den neurrian txirrindulari ere bidea eman behar zaio.

ESPALOIAK: Mugikortasunren planeko helburuetako bat da oinez ibiltzeko dauden trabak kentzea.

- ❖ Espaloietan dauden oztopoak identifikatu eta ahal den neurrian kendu nahi ditugu: posteak, trafiko seinaleak, Euskaldunako semaforoa...
- ❖ Espaloietan aparkatuak dauden ibilgailuak kentzeko asmoz hainbat hilabetetan oharra jarri zaie eta eragina izan ez duen kasuetan isunak jarri dira.

APARKALEKUAK: Altzateko plazan parkimetroa jarri da, ez da deus ere ordaindu behar, baina horren helburua da denbora mugatzea, autoak egun osoa bertan egon beharrean denbora tarte txikian egotea eta txandakatzea. Hau egiten da Altzateko karrika eta enparantzako merkataritzaren mesedetan.

Aldi berean, Alzate karrikan karga eta deskargarako bi eremu markatuko dira, bertako merkatarien horniketarako.

Herriguneko aparkalekuetan turismoak bakarrik aparkatzen ahal dira, ezin izanen da ez kamiorik, ez karabanarik aparkatu.

Etorkizunari begira, behar handiak daude, bertzelako neurriak aurreikusiak ditugu eta ahal den neurrian gauzatuko ditugu: espaloiak moldatu, txirrindulenzako aparkalekuak sortu, eskoletan sentsibilizazioa landu, ikasleekin eta helduekin...

ABIADURA MURRIZTEKO: Nafarroako Gobernuak errepideen sailarekin harremanetan jarri gara eta herria zeharkatzen duen errepidea margotzeko lanak egiterakoan, orain arte dagoena eta guk proposatutako seinalizazioa markatuko dute.

- ❖ Herrigunean gehienezko abiadura 40 km/ordukoa izanen da eta zenbait karrikatan 30 km/ordukoa: Alzate, Kanttonberri, Legia, Hegoalde, Julio Caro Baroja, Geltokia...
- ❖ Pasabide goratuak jarri ditugu hiru tokitan:
 - Bidasoa karrikan;
 - Alzate karrikan
 - San Esteban karrikan, Legarbideako sarre-raren ondoan.
 - Eztegaran, Mukixu zubian jarri nahi izan dugu baina ez digute baimenik eman;
- ❖ Geltoki karrika, Ilekqueta karrika eta Zalain industrialdean abiadura murriztekoak jartzen ari gara.
- ❖ Foruen plazan zebrabide berria paratuko da eta geltoki karrikan zegoena berriz jarriko da.



2012ko aurrekontua eta inbertsioak

Abenduan onartu zen 2012ko aurrekontua, guztira 3.219.071 € aurreikusten dugu. Horietatik **gastu arruntera** 2.832.519 € bideratzen dira, eta **inbertsioetara**, 386.552 €.

Inbertsioen atala jautsi da aitzineko urtearekin alderatuta, egin berri ditugun obrak 2011ko aurrekontukoak dira eta. 2012ko aurrekontuan inbertsio hauek aurreikusi ditugu:

- **Toki Ona eta Kaxerna arteko bidea**
- **Legiako zoladura moldatu**
- **Ur Horniduraren Bigarren Fasea, Lesaka-Bera soluzio bateratua** (Nafarroako Gobernuak diruz lagundua).
- **Abeltzaintzarako Azpiegituren Hobekuntza** (diruz lagundua).
- **Oihan Landaketa eta Mantenua** (diruz lagundua).
- **Herriko Etxearen ekipamendua**
- **Hilerrian hobekuntza lanak** (diruz lagundua)

Etorkizunari begira ez dugu obra handiak egiteko planik, hemendik aitzinera dagokiguna da herriko ekipamenduaren ego-

era aztertzea eta egoera txarrean dagoena moldatzea. Egoera ekonomikoari eusteaz gain, herriaren kudeaketa jasangarria bideratu beharrean gaude, **energiaren kontsumoa murriztu** aldera, bertzeak bertze. Eta hori nola egiten da?

Hainbat AUDITORIA desberdinak egiten ari gara, karrikako argiterian, kiroldegian, Ricardo Baroja eskolan eta Osasun Zentroan. Horien helburua da egoeraren azterketa orokorra egitea eta hobetzeko egin beharko liratekeen inbertsioak planteatzea.

Horretaz gain, zenbait eraikinen galdarak egoera hagitxarrean daude, aldatzeko premia dute, gasolioaren ordez biomasa erretzen duten galdarak paratzeko proiektu bat prestatu dugu, gure mendietako egurra probexu nahi baitugu. Honek hasierako gastu handia ekartzen ahal du, eta diru laguntzak bitartean ari gara.

URA. Gobernuak finantzatuta, ur gehiago lortzeko ikerketa bat egin berri da azkeneko hilabeteotan. Horren emaitza ekainean aurkeztuko zaio gobernuari, eta hor erabakiko da gaia nola bideratu, zer obra egin,... Jakina, horrek bere kostua izanen du.

Egin berri ditugun obrak: karriketari, Herriko Etxean, Ibardin aldean

Gaurgero akautzen ari dira hilabete hauetan aztoratu gaituzten lanak. 2011ko aurrekontuan sartzen dira guztiak eta Nafarroako Gobernuak Toki Azpiegituren Planaren diru laguntzarekin egin dira:

- ❖ **Konponbide bateratua Lesaka-Bera.** Berako jarduketak. 1. fasea. Ur hornidura eta saneamenduarekin lotura Ibardin aldean. 612.652 €tan esleitua.
- ❖ **Udaletxeko beheko eta lehenbiziko solairuak berritzea** eta instalazioetarako gela bat prestatzea, 675.611€tan esleitua.
- ❖ **Zoladura eta sareak berritzea** Eztegarra, Herriko Etxeko Plaza, Xubixabal, Kanttonberri eta Ibardingo errekan, Itzea auzoaren inguruan, 485.574 €tan esleitua.

Hainbertzean esleitua izateak ez du erran nahi hori gastatu dugunik, lanak iraun duten bitartean egokitzapenak eta aldaketak etorri baitira, batzutan ezinbertzean, erraterako Herriko Etxeko plazan uraren sarea ez zegoen aurreikusia eta berritzeko premia zuen, eta aldiz behin zorua altxatu egokia ikusi da argindar kableak lurperatzea eta horretarako tutuak eta arketak jarri behar izan dira. Herriko Etxean, aldiz, bigarren solairua ez da moldatu baina lehenbiziko solairuko sabaian bigarrenaren oinarria indartu da. Gauza bat eta bertzeren artean, 80.000 € inguruan igoko da gastua. Dirulaguntzek onartzen ez dituzten kontzeptuak dira, eta horregatik ez zeuden proiektuan, baina egiteko unea hau zela pentsatu da, aitzineragoko utziz gero diru gehiago kostatzeaz gain, dena berriz altxatu behar izatea ekarriko luke, zentzurik gabeko erabakia litzateke.